

Harian

10 ■ Presoen sendeak, konpromiso eske
 Gaixo dauden presoak «bizirik etxeratzeko» konpromisoa eta lana eskatu diote euskal gizarteari.

Ipar Euskal Herrian zerbitzu publikoak murrizteari ekin dio Sarkozy, eta oraindik arlo guztietan neurri zehatzak aurkeztu ez baditu ere, sindikatu eta alderdien ihardespena piztu du.

AITOR RENTERIA
 Baiona

Frantziak defizit handia dauka, eta kontuak orekatzeko aldera, zerbitzu publikoak murrizteari ekin dio, arlo guztietan. Hasteko, funtzionario kopurua apalduko dela iragarri du, eta orain Ipar Euskal Herrian dauden zerbitzu publiko anitz Pauera edo Bordeleira eramateko xedea lantzen ari da. URSSF enpresen kotizazio kutxa, CAF familien laguntzarako kutxa, zergak, CPAM eritasun segurantzaren kutxa edo auzitegiak... arlo guztiak erreformaren jomugan daude. Aurrezteko xedearen ildotik, Frantziara, Pauera aldatzeko bidean.

Iragan ostiralean Baionako auzitegi abokatuak manifestazioa egin zuten Pauen. Justizia kartaren erreforma bultzatu nahi du Frantziak, eta bertan Baionako auzitegia Pauera eramatea aurreikusten zen. Azkenean ez da horrelakorik gertatu, bederen 2010. urtea baino lehen. Baina dagoeneko iragarri dute Donapaleuko (Nafarroa Beherea) eta Miarrizteko (Lapurdi) auzitegiak itxiko dituztela.

Jende anitzek egiten du lan aipatu zerbitzuetan. Erreforma abian da, eta nehorik ez du lanpostuaren segurtamena. Sindikatu eta alderdiak uzkur dira. Oraindik ez dakite zein izanen den erreformaren eragina. CAFen, adibidez, administrazio kontseiluak ekainean onartu zuten berrantolatzeari ekitea. Baina geroztik zehaztasunik ez.

Alta, hurbileko zerbitzu publikoek sortzen dituzte erreferentziak herri eta hirietan. Erreferentzia, erreforma egiten baldin bada, Paue eta Bordele bihurtuko dira. Departamendu bakoitzean zerbitzuberu bakarra nahi du Nicolas Sarkozy Frantziako presidentek. Ipar Euskal Herria Pirinio Atlantikoetan kokatua dagoenez gero, eta Paue denez hiriburua, zerbitzu publikoen erabakiguneak hara eramatea da xedea.

Sindikatuak pribatizazioaren eta neoliberalismoaren eragina ikusten dute prozedura horren gibelean. Zerbitzu publikoek errentagarri izatea eskatzen die Frantziak. 1945az geroztik plantan ezarritako sistema arriskuan dagoela



Abokatuaren protesta, iragan ostiralean, Pauen. BOBEMDE

Zerbitzu publikoak erbestera bidean

diote. Sindikatu eta alderdi aberzaleek salatu dute beste urrats bat egin dela Euskal Herriaren desitxuratze administratiboan.

CFDT

CFDT sindikatuak akordio bat lortu du enpresa txiki eta ertainen konfederazioarekin (CGPME). Azaroaren 6an URSSAFeko arduradunekin bilduko dira Parisen. «Erreformaren ondorioz egitura gehienak departamenduko hiriburu kokatuko dituzte, eta guk bilkura horretan eskatuko dugu URSSAFeko egitura nagusia Baionan kokatzea», dio CFDTko Jean Baptiste Etxetok.

Zergei eta CAFi dagokienetz, zuhurragoa da CFDT sindikatua. Baliabideak zentzuz erabili behar direla dio, eta defizita gogora ekarri. Zerbitzuatal batzuk zentralizatzearen alde dago, xahutzeak murrizteko asmoz. «Hala ere, beharrezkoa da atxikitzea jendearekiko harremana, hurbiltasuna». CAFen kasuan, Baionako eta Paueko zenbait zerbitzuek bat eginenez gero, enplegu guztiak atxikitzeko indarra egon daitekeela dio.

Hala ere, banaketa administratiboa salatu du CFDTk. «Euskal de-

partamendurik ez denez, ez dakigu zenbat lanpostu galduko ditugun, itsu gaude gure herrialdean bertan, informaziorik gabe».

SUD

Erreformaren aurka dago SUD sindikatua, eta gogor salatu du zerbitzu publikoak Pauera eramateko saio, bereziki baserri eremuak. Mehatxuak gero eta errealekoak, hurbilagoak direla salatu du. «Herriarren berdintasuna bermatu nahi baldin bada, tokiko zerbitzuak atxiki behar dira, ezin da lurralde bat hustu bertze bat janzteko». Zerbitzu publikoak errentagarritasuna lortu nahi izatea deitortzen du.

Harrabotsik gabe egiten diren erreformak ekarri ditu gogora: ez dituzte zerbitzuak erabat ixten, baina baliabideak eta ordutegiak murrizten dituzte. Herri gehienetan zerbitzu guztiak zeuden. Orain, aldi, herrietako posta agentziak edo posta puntuak ezartzen dituzte, zerbitzu osoaren orde. «Komertzianten batek gutxieneko zerbitzua ematen du bere saltegi, baina bezeroek egiazko posta zerbitzua behar badute,

Baionara edo hiri handi batera joan behar dute. Gutxieneko zerbitzuak bermatzea dute helburua, baina bertze norbaitek egina, ez postak».

Hurbiltasunaren eredu hausti eta lanpostuak galduko direla salatu du SUDek. Dena den, ez daki zehatz zenbat lanpostu galduko diren. Azken finean, hautesiek hartu dute posta ixteko erabakia, eta horretan arrazoi ekonomikoak dira nagusi. «Hautesiek onartzen dute kentzea eta esku pribatuetan uztea, eta gu bezalako sindikatuak erabaki guneetatik at gaude».

LAB

Zurrumurru, egitasmo eta itxiera mehatxuen inguruan, LABek erne egotera deitu ditu herritar, kontsumitzaile eta langileak. Herrian bertan lan egiteko, bizitzeko eta erabakitze Euskal Herriak bere egiturak behar dituela dio LABek. Zerbitzu publikoak Frantziaren ikuspegiaren arabera osatu badira ere, herritarrei hurbileko zerbitzua bermatzen diela azpimarratu du. Erreformen gibelean ikuspegi neoliberal dagoela salatu du. Erreformen gibelean, zerbitzu publiko-

ak ahuldu eta pribatizazioa bultzatzea dagoela uste du LABek. Hurbileko zerbitzu publikoaren aldeko kanpaina egiten ari da orain.

Erreformak Ipar Euskal Herria herri gisa desitxuratu nahi duela salatu du. Auzitegiaren kasuan, adibidez, Zuberoa Oloroera dago loturik, Biarnora. «Horrelako erreformekin, oraindik urrutirago eramahi dute Zuberoa».

AB

Zergak ez dira erabiltzen zerbitzu publikoak hobetzeko, ez da biltzen hurbiltasuna eta eraginkortasuna, inbertsio gutxiago eginez errentagarriagoak izatea baizik», dio Peio Etxeberri-Aintzartek. Ipar Euskal Herriko herritar gehienek ezagutza instituzionala eskatzen dituela dio. «Izan dadin departamendua, izan dadin berezko instituzioa, CAF, URSSAF, zerbitzu guztiak behar dira, osorik. Denak behar dira, osotasunean». Horregatik, tokiko eskumen guztiak bilduko dituen instituzioaren beharra dagoela nabarmendu du. «Beharra dago. Kanpora eramanez kontrako mezua zabaltzen da, eta arazo politikoa oraindik larriago bihurtzen dute».

Batasuna

Batasunaren iritzi, iragarritako neurriak oso larriak dira, gertuko zerbitzu publikoaren desgaituraketa ekartzen baitu, zerbitzuen bulego gehienak Euskal Herriatik kanpo kokatuz. «Frantziako Estatuak Ipar Euskal Herriaren mepokotasuna areagotzen du, erabakitze guneak gure eremutik at utzirik». Horren inguruan hautesiek izaniko pasibotasuna adierazgarria dela salatu du. «Batasunak eskumen zabaleko koadro instituzionala aldarrikatzen du Ipar Euskal Herriarentzat, autonomia herria egituratzeko, gure geroaren jabe izateko aukera bermatuko digunak».

PSF

Christophe Martin Alderdi Sozialistako kontseilari nagusiak gaitzetsi du zerbitzu publikoak ahalutza eta kentzea. «Euskal Herriari berezitasuna aitortzen zitzaion zerbitzuen bikoizketaren bidez, errealitate bati ihardesten diola». Zerbitzu publikoen kontrako etengabe eraso gaitzetsi du. Sindikalismoan ari da; URSSAF eta CPAMen, hain zuzen ere. «Betidanik egon da Paue eta Baionako zerbitzuak bat egiteko tentazioa, baina ez da egin, lurralde honen berezitasuna kontuan hartu izan delako». Erabakia iragarritako deszentralizazioaren kontra doala dio. Egoitzak hemen atxiki ere erabakiak Pauen hartuko direla salatu du.